

## Balio erantsia

Oro har, errepidean murgiltzea arriskua izaten da gidari eta ingurukoentzat. Egunero istripuak egoten dira eta arrazoi nagusienetarikoa ikusmen falta izan oi da. Europapress egunkariak adierazi duenez, istripuen %17 iluntasun faltagatik gertatzen dira. Hori dela eta, hauek lehenbailehen murrizten hastea dugu helburu. Horretarako eta motorzaleen ikusgarritasuna handitzeko asmoz, gure enpresak txaleko berezi batzuk diseinatu ditu.

ULEM Technologyk sortutako txalekoa motoristen eta quad gidarien errepide istripuak murrizteko helburuarekin garatu dira. Txalekoa islagailua izango da eta bizkarrean argi batzuk izango ditu. Horrek ordea, ez du gidariaren erosotasuna ekidingo errepidean gidatzeko aproposa izango baita. Gainera, segurtasun handiagoa bermatzen dio motorzale eta quad gidariari.

DC Technologyk garatutako quad eta motor gidarientzako txaleko argiztatuan oinarrituta, gure produktuari hainbat onura gehitu dizkiogu. Ibilgailua martxan jarri bezain laster, automatikoki txalekoari lau argi zuri piztuko zaizkio txalekoaren atzeko parteko aldeetan ikusgarriagoa izan dadin. Horrez gain, motorren argi intermitenteak ikusgarriagoak egingo ditugu. Horretarako, motorzaleak edo quad gidariak alde bateko intermitentea piztean txalekoaren alde berdina ere horiz piztuko da (automatikoki). Hau da, eskuineko intermitentea pizten denean, txalekoaren eskuineko aldea guztiz argiztatuko da, beste gidarientzako ikusgarriagoa izan dadin. Berdina gertatuko da txalekoaren ezkerreko aldearekin ezkerreko intermitenteari emanez gero.

Balioa kualitatiboa izango da, merkatuko lehiakideengandik bereizten gaituena diseinua delako. Hau da, gehitutako argitasuna eta automatizazioa izango dira benetan ezberdin egingo gaituztenak. Ezaugarri honi esker, gidaria ez da argiei buruz kezkatu beharko. Horrez gain, produktuan momentu oro egongo den berritasuna lortzeko nahiak eta ikerketak ere gure izaera markatuko dute. Gainera, eskainiko dugun zerbitzu pertsonalizatuaren arabera, bezeroari prezioa egokituko egingo zaio. Produktuaren zerbitzu teknikoaren bitartez, produktuaren egoera egokia dela ziurtatuko dugu eta beharrezkoak diren berrikuntzak edo konponketak eskainiko ditugu. Horretarako, langileak beharrezkoak izango dira, beraz, hainbat lanpostu erraztuko ditugu, behar bereziak dituzten jendeari ere aukerak emanez.

Bezeroek gertu edukiko dute lekuren bat txalekoa erosteko, bai denda fisikoetan z edo web orrialdearen bidez (salmenta internazionala). Denda fisiko batean erosteko aukera ez badute, internet bidez erosteko aukera ere izango dute. Horrez gain, zerbitzu tekniko eskaintzen den lokaletan ere erosteko aukera egongo da. Zerbitzu tekniko hau, hasiera batean, 300.000 biztanle baino gehiago dituzten probintzien hiriburuetan eskainiko da.

Azkenik, produktuaren 100% Euskal Herrian garatuko da, enpresa txikiak bultzatuz baina enpresa handiekin lehiatuz. Gure herrialdeko garapena sustatu nahi dugu, hemen eskainiko den produktu bat hemen garatu beharko litzatekeelako beti, ez herrialde ezberdinetan. Gainera, produktua egiteko erabiliko diren materialak ahalik eta gutxien kutsatzen duten

materialak izango dira, gure ingurunearen kutsadura murrizten saiatuz, ingurumena zainduz eta errespetatuz.